

e-debagoiena

ETORKIZUNA HURBILTZEKO TE ACERCAMOS EL FUTURO

PRENTSA-DOSIERRA

KONTZEPTUA

e-debagoiena Informazioaren Gizartera egokitzeko proiektu komunitarioa da. Proiektuaren ezaugarri nagusiak aurrea hartzea eta lankidetzak dira.

Proiektua sortu zen Debagoieneko hainbat agenteren eraginagatik. Horiek ikusi zuten beharrezkoa zela informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien etorrera bizkortzea, eta era berean, teknologia horiek eskualdeko beharretara egokitzea aproposa zela. Horrela, esfortzua egin da etorriko dena azaltzeko, lehentasuna emateko interes handiena duenari eta errealitate bihurtzeko modua aurkitzeko. Helburu komun horrekin, helburu partikularren gainera, egin dugu lan eragileok. Lankidetzan jardun dugu, sinergia eta osagarritasuna topatzeko gure eta proiektuaren *partner* teknologikoen artean.

Kontzeptuari dagokionez, Javier Etxeberria irakaslearen ikusmolde *telepolitano*-a barneratu dugu: Debagoiena Gipuzkoa kaleko auzo-komunitatea da, Araba eta Bizkaia kaleen elkargune; hori guztia, *Telepolis*-ko Euskal Herria auzoan. Komunitate hori Informazioaren Gizartean murgil daiteke, baina bertan galdu barik. Orain dela gutxi argitalpen baten (*), Etxeberria irakasleak honakoa baieztatu du: ***"Espazio elektronikoa herri eta industria espazioen gainera dago, baina ez ditut horiek biak deuseztatzen ez ordezkatzeko ere. (...) Hori dela eta, hiru inguru sozial adierazgarri daudela esaten dugu, elkarren artean gainjarrita, eta ez espazio elektronikoan bakarrik. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek dakarten berritasunek ez gaituzte itsutu behar. Hankak lurzoruan izan behar ditugu, lurzorua lurrezkoa (E1) izan edo asfaltozkoa (E2) izan"***. Oinarri horrekin, ikusi dugu Debagoienak garatu duen pertsonalitate kolektiboak –oraingo egoera ekonomikoa kasu– bizi iraun dezakeela Informazioaren eta Komunikazioaren Gizartean, betiere, hirugarren ingurune baldintzetara egokitzen baldin badakigu. Are gehiago, gure eskualdea gero eta lehenago egokitu hirugarren ingurune horretara, gure balioen eragina ingurune horretan orduan eta handiagoa izango da.

(*)Etxeberria Ezponda, Javier: *'El espacio electrónico, nuevo espacio para la acción social'*. EKONOMI GERIZAN. IX. zenbakia. Euskadiko eta Nafarroako Aurrezki Kutxen Federazioa. 2002ko urtarrila.

PROZESUA

Proiektua aurrera atera ahal izateko lehenengo batzarak 2001eko uztaillean hasi ziren. Orduan, Mondragon Unibertsitateko errektore eta MC C ko Zuzendaritza batzordeko kide Jaber Retegik ardura hartu zuen bi erakunde horietako ordezkariak batzeko Debagoieneko Udalaren Mankomunitatearekin, Goiena eskualdeko komunikazio taldearekin eta Euskaltel operadorearekin. Urte hartako udako oporraldien aurretik, proiektuaren lerro nagusiak eta lan-programa zehaztu zituzten. Udazkenean, dinamika osagarriak landu zituzten, definizio sektoriala egin zuten *partner* teknologikoekin, batzar eta osoko bilkura garrantzitsuak egin zituzten... Horren guztiaren ondorioa abenduaren 13an etorri zen, orduan sinatu baitzuten oinarriko dokumentua. Batzar hartan Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saila izan zen, eta proiektuan buru-belarri sartzeko asmoa agertu zuen. Nahiz eta herri egitasmoa izan, sail horrek ikusi zuen esperientzia pilotua izan zitekeela, eta hala, Euskadi Informazioaren Gizartean Planaren erreferentzia izango litzatekeela Debagoiena ibarra. Eusko Jaurlaritzak ekarpenak egin zituen proiektuan, eta adostu egin zuten hitzarmen bidez.

Gauzak horrela, gaur, hitzarmen hori sinatuko dute, eta hala, proiektuaren lantze prozesua bukatutzat emango dute, eta aurrerantzean betetze faseari helduko diote.

PROIEKTUA

e-debagoiena proiektu integral, integratu eta integratzailea da:

• Integrala

Eskualdeko eragile ekonomiko eta sozialen behar guztiak asetzea du helburu, kolektiboak eta indibidualak. Lehenengo formulazioan, unibertsitatea, osasuna, administrazioa, industria, informazioa eta herritarren zerbitzuak landuko dituzte. Horiek, proiektuak aurrera egin ahala, elkarren osagarri egingo dira.

• Integratua

Berdin tratatuko ditu azpiegiturak eta zerbitzuak, euskarria eta edukia. Asmoa da erabiltzaileari banda zabaleko sarea helaraztea zerbitzu atseginekin, eta era berean, erabiltzailearen eta zerbitzuaren bat egiteak sarearen garapen kapilarra eragin dezan.

• Integratzailea

Eskualdea bera izango da erabakiak hartzeko subjektua eta eskualdean bertan ezarriko dute proiektua. Proiektuaren titularra Debagoieneko Mankomunitatea izango da, eta ibarreko udal guztien lankidetzat izango du. Proiektutik ateratzen diren prestazio guztiak eskualde osora helduko dira.

Proiektuaosatzen dute eskualderako banda zabaleko azpiegituraren Plan Gidatzaileak eta hainbat aplikazio esperimentalek osatutako multzo ireki batek. Aplikazio esperimental horien helburua izango da erabiltzailea eta sarea uztartzea, erabiltzaileak sarea hobeto erabil dezan.

AZPIEGITURAK

Informazioaren Gizartea eskualdean garatzea da helburua. Hori dela eta, beharrezkoa da ikuspuntu hori azpiegituren hedatzean aplikatzea, horrela, emaitza herri guztietan berbera izateko eta herri horietako bizilagunek aukera berberak izateko. **Sare** Planak helburu hauek ditu:

- Banda zabaleko komunikazio sarea zabaltzea, Debagoiena osatzen duten herri guztiek sarbidea izan dezaten sare horretan.
- Debagoieneko herritar guztiek sare hori erabili ahal izatea bermatzea, eta atari eta etxe guztietara hedatu.

Plan horren asmoa da jadanik abian den zuntz optikoko sare tronkal primarioa erabiltzea, eta era berean, sare kapilarra zabaltzea herrigune guztietan, kontuan hartuta herri batzuek daukaten kanalizazioak. Hori guztia pare bat urtean eginda egongo dela aurrez ikusi dute.

APLIKAZIOAK: ADMINISTRAZIOA

e-administrazioa aplikazioan bat egiten dute herri administrazioako ardurek eta Eusko Jaurlaritzak administrazioaren desmaterializazioan estandarrak definitzeko prestatzen diharduen ereduak. Aplikazio horrek definizio hori lortzeko behar beste formula aztertzea du xede, eta hori herrialde osoari hedagarria da. Hauexek dira helburuak:

- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (TKT) eragina frogatzea herri arloko berringeniaritzako prozesu administratiboetan. Era horretan herritarra horiekin erlazionatuz.
- TKTen eragina frogatzea herri erakundeen gobernu entitateen erabaki prozesuetan herritarrek parte hartzen dutenean.

APLIKAZIOAK: ENPRESA

Ekimen pribatuak garatu dira gehien enpresan. Hori dela eta, abian dauden dinamikekin osagarritasuna bilatzea du helburu proiektuak. Horrela, enpresek behar dituzten azpiegitura handiak Plan Gidatzailearen bitartez sustatzeaz gain, ondorengo aplikazio esperimentalak definitu dituzte:

- **Cyberindustrialdeak.** Gaur egungo industrialdeen baliokide elektronikoa da. Teknologia aurreratua darabilten enpresen garapenerako, sarean azken belaunaldiko zerbitzuak dituzten espazioak sortzea du helburu.
- **Discol.** Lankidetzan oinarritutako proiektua da, eta ingurune hedatuetan aplikatzen da. Komunikazioaren beharrezkotasunetan sakondu gura du, elkarren artean urruti dauden diseinu interaktiboek sortzen dituzten datuen transferentziei eta interakzioei aurre egiteko.
- **Iparcom.** "Bulegoa Sarean". Euskaltel enpresak partzialki ezarri du dagoeneko, eta Debagoienarako egokitu egingo du. Batez ere, pymes-ek, micropymes-ek eta profesionalek dihardute horretan; horiek, oro har, banda zabaleko sareetatik at egoten dira.

APLIKAZIOAK: HEZKUNTZA

Hezkuntza XXI esperientzia bezala definitzen da. Etorkizuneko heziketako alderdi guztietan –jarraitua eta arautua– jardutea du helburu, irakaskuntzaren erronkari erantzuna emateko. Helburu hauek ditu:

- Zortzi urte barru arteko heziketaren eskaintzako garapen kontzeptuala zehaztea eta

hori osatzen duten oinarrizko elementuak esperimentalki garatzea.

- Goi interaktibitateko e-learning modalitatean heziketa gaiak integratzea, heziketa gai presentzialak eskura izatea eta irakaskuntza prozesuaren tutorizazio prozesuak baliatzea.
- Hainbat gailuren bidez, heziketara eta tutorizaziora bideragarritasuna integratzea (ordenagailu pertsonala, poltsikoko PCa, e-book...).
- Etorkizuneko heziketa esperimentatzea eta erreferentzia izatea berau aplikatzeko unibertsitateetan, eskoletan eta heziketa enpresetan.

Aplikazio osagarri batek, Biblio XXI-ek, e-book deritzon teknologia aplikatzea du helburu. Sareko liburutegietan eta berriro karga daitezkeen edukietarako euskarri mugikorretan oinarritzen da.

APLIKAZIOAK: BIZTANLEENDAKO

GoienaNet atari horizontal, generalista eta unibertsala da, eskualde arlokoa. Debagoieneko bizilagunak sarean gehien erabiliko duena hartuko du barne. Hauexek dira GoienaNet atariaren helburuak:

- Debagoiendar guztiak Informazioaren Gizartean sar daitezen sustatzea, eta behar adina zerbitzu zuzen, bilatzaile eta lotura eskaini, GoienaNet sarerako ate nagusi bihurtzeko.
- Eskualdea informazio-subjektu izatea, maila orokorreko beste alor batzuen parera, eskualdearen beraren kohesioa eta identitate kolektiboa indartzeko, beronen gaur egungo egoera sozio-ekonomikoa kontuan hartuta.
- Euskarari beste prestigio-aukera batzuk ematea, modernotasun inguru bateko hizkuntza-erreferentzia izan dadin.

DENBORA ETA DIRUA

e-debagoienaren asmoa da mugarik gabeko prozesu bat sustatzea denbora mugatu baten: Debagoiena Informazio Gizartean sartzea, hain justu. Etorkizunari aterik itxi barik, proiektuak bi urte iraungo du. Denbora tarte horretan, eskualde osoan jarriko dute banda zabaleko azpiegitura osoa, eta aurrez ikusitako aplikazioen esperimentazio epealdia bukatutzat emango dute. Aplikazio horiek sendotzea eta etorkizunean beste batzuk abian jartzea hainbat erabakiren arabera gertatuko dira. Lortutako emaitzen arabera hartuko dituzte erabaki horiek.

Aurreikuspen ekonomikoei dagokienez, hona hemen aurrekontuak zenbakitan:

• Azpiegituren Plan Gidatzailea.....	15,2 milioi euro
• Aplikazio esperimentalak.....	3,9 milioi euro
• Gestio eta laguntza gastuak	0,4 milioi euro